



Ikerketa proiektua



Ikuspegi kritiko eta kolaboratiboetan
oinarritutako ikerketa proiektuak
egiteko gida







Ikerketa proiektua



Ikuspegi kritiko eta kolaboratiboetan
oinarritutako ikerketa proiektuak
egiteko gida



Ikuspegi kritiko eta kolaboratiboetan oinarritutako ikerketa proiektuak egiteko gida

EGILEAK:

Articuladxs taldea: Axel Rojas Martínez,
Manuela León Rojas, Julio R. Jaime Salas,
Robinson Piñeros Lizarazo, Juanjo Celorio
Díaz, Gema Celorio Díaz, Andrea Rey López
eta Amaia del Río Martínez.

EDITOREAK:

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU)
Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Gara-
penari Buruzko Ikasketa Institutua

Caucako Unibertsitateko Taller
de Etnografía ikerketa-mintegia

Hego Kolonbiako Unibertsitateko InSur-
Gentes ikerketa-taldea eta Investigación
en Prácticas Educativas y Sociales (IPES)
ikerketa-taldea

Corporación Ensayos Para la Promoción
de la Cultura Política taldea

FINANTZATZAILEA:

Elankidetzeta, Lankidetzarako eta
Elkartasunerako Euskal Agentzia.



DISEINUA ETA DIAGRAMAK:

Aquelarre laborategi feminista

Baimenduta dago lan hau osorik edo
zatika erreproduzitzea, aldatzea, egu-
neratzea edota bertsio berriak egiteko
erabiltzea, inolako mugarik gabe. Jatorri-
zko lana aipatzea gomendatzen da.
Eskubide guztiak askatuta.

Popayán, 2025





Aurkibidea

Aurkezpena _____ 7

Sarrera _____ 11

Ikerketa proiektu baten osagarriak _____ 17

Ikerketa proiektu bat idazteko ibilbidea _____ 27

Arazoaren planteamendua _____ 33




Helburuak _____	41
Lan hipotesia _____	49
Esparru teorikoa / Erreferente kontzeptuala _____	55
Aurrekariak _____	63
Justifikazioa _____	69
Metodologia / Esparru metodologikoa _____	75
Izenburua _____	83



Jardueren kronograma_____	89
Sarrera _____	97
Aurrekontua_____	103
Eraldaketara bideratutako ikerketa kritiko baterako erreferenteak_____	109
Bibliografia edo aipatutako erreferentzien zerrenda_____	121

Ikerketa proiektua





Aurkezpena

Gida hau “Euskal-kolonbiar artikulazioa, hezkuntza emantzipatzailea eta elkarlaneko ikerketa kritikoa esperimentatzeko, ikasteko eta komunikatzeko” (Articula-dxs II. fasea, 2024-2025) proiektuaren esparruan kokatzen da. Proiektua honako hauek bultzatu dute: Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Hegoa Nazioarteko Lankidetzaz eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua, Hego Kolonbiako Unibertsitateko In-Sur-Gentes ikerketa-taldea eta (USCO) Investigación en Prácticas Educativas y Sociales (IPES) ikerketa-taldea, Caucaoko Unibertsitateko (UNICAUCA) Taller de Etnografía ikerketa-mintegia eta Corporación Ensayos taldea.

Proiektuaren helburua, bada, kultura akademi-koaren eta ezagutzen ekoizpen sozialaren arteko artikulazio-logikak bultzatzea da –Iparralde zein Hegoalde globalizatuan–, bizi ditugun errealitate bidegabeak eraldatzeko eta emantzipaziorako alternatibak sortzeko.

Denbora horretan, hainbat ekimen abian jarri ditugu: ikasleei zuzendutako mintegiak, beren ikerlanak bizitzarekiko konpromisoaren arabera orientatzeko; irakasleak, ikasleak eta gizarte kolektiboak elkartu dituzten tailer ekosozialak; eta Ikerketa-Ekintza-Partaidetzari buruzko Jardunaldiak, gizarte eraldaketarako esanguratsua den ezagutza eraikitzearen zentzuan sakontzeko. Horiei esker, ikasleengan ikuspegi etikoak

eta errealitatea ezagutzeko eta munduan kokatzeko gaitasunak garatzearen garrantzia ulertu dugu.


Zentzu horretan sortu dugu esku artean duzun gida hau. Gure ustez, gaur egun ezinbestekoa da ikerketa-jarduera beste mundu batzuk eraikitzearekin lotzea. Ikerketa kritikoa behar dugu, hain zuzen ere, gure lurraldeetako erronkei erantzuten diena eta erresistentzian dauden komunitateekin konprometitzen dena. Gida hau pentsatzeko, eztabaidatzeko eta gure ikaspenak zalantzan jartzeko lagungarria izatea espero dugu, ezagutza emantzipatzailea sortzeko helburuz.

Ikerketa proiektua

Hala, zure ikerketa proiektuan laguntzeko eta lana errazteko “landa-koaderno” gisa diseinatu dugu gida. Hark tresna izan nahi du, elkarri eragiteko, zure urratsen bitakora izateko eta zure zalantzei lekua emateko. Azken batean, zurekin egoteko, orain eta etorkizunean, zure lehen ikerketen oroigarri gisa.

Articuladxs taldea
2025eko urrian





Sarrera

Gida hau ikuspegi kritikoetan oinarritutako ikerketa-proiektuak diseinatzeko laguntza-tresna da. Horietan, honako hauek parte hartzea nahi dugu: unibertsitateko eta pentsamendu akademiko eta kritikoko zentroetako ikasleek, irakasleek eta ikertzaileek, eta, hain zuzen ere, mundu hobeak eraikitzen dituzten kolektiboek eta gizarte indarrei konpromisoa eta elkartasuna adierazten dieten horiek. Elkarri lotutako hiru suposiziotatik abiatzen gara, gure esperientziaren eta etorkizuneko ekintzen oinarri gisa.

Lehenik, hau laguntza-gida bat dela. Hau da, ez da esparru hertsagarri edo gidaliburu konbentzional

bat, ez ditu jarraibideak pausoz pauso ematen, eta ez du ikerketaren forma helburuen gainetik jartzen. Eskaintzen dugun ibilbidea egokia iruditzen zaigu eta emaitza onak izan ditu, baina horrek ez du esan nahi hitzez hitz jarraitu behar denik. Aitzitik, bakoitzak esperimentatu ahal izango du, bere saihezbideak hartu, eta, hala ere, emaitza ona lortu, bideari erabat jarraitu gabe ere. Horretarako, nora doan eta zertarako jakin beharko du, eta bidea gogoz eta hausnartuz ibili beharko du, ez protokolo burokratiko bat bezala.

Bigarrenik, gida hau ikerketa kritikoko proiektuak diseinatzeraz bideratzen dela. Horietan, ezagutza sortzeko prozesua kolektiboa da, eta gizarteak dituen arazoak eraldatzeko garrantzitsua. Hau da, munduko hainbat lekutan ibilbide luzea duen

ikerketa-ekintza-partaidetza tradizioarekin bat egiten dugu. Zentzu horretan, ulertzen dugu prestakuntza akademikoa ez dela pribilegioa bakarrik, gure errealitateak hainbat mailatan ezagutzeko eta eraldatzeko aukera handia ere bada, tokiko maila txikitik, maila global zabalera.

Hirugarrenik, posible dela unibertsitateetan ikerketa kritikoko eta konprometituko proiektuak diseinatzea eta egitea, gizarte eraldaketan parte hartzen duten komunitate eta subjektuekin batera. Horrek ez du esan nahi hura denik akademiatik ikertzeko modu bakarra. Aitzitik, erabaki eta konpromiso bat da, akademiako eremuek mundu hobeak sortzen lagun dezaten.

Ikuspegi kritikoetatik ikertzeak honako hauek ulertzeko eta eraldatzeko aukera ematen digu:

genero-harremanetan gertatzen diren indarkeriak, patriarkatuaren jardunbideak, gizarte klaseko pribilegioen erreprodukzioa, etnia eta arraza diskriminazioa, boterearen geopolitikako sare globalak, memorien lehia, eta giza jarduerak naturan dituzten ondorioak, besteak beste.

Halaber, akademizismoa eta burokrazien pribilegioak kolokan jartzen eta gainditzen dituzten eremuak sortzen laguntzen du, harreman horizontalagoak, burutsuagoak eta kolaboratiboagoak sortzeko; hau da, akademian nagusi izaten diren subjektu-objektu harremanak gainditzeko, eta ezagutza subjektuen artean (subjektu-subjektu) sortzeko.

Azkenik, eta aurrekoarekin lotuta, ikerketa horrek ikuspegi antropozentrikoa gainditzera eramane behar gaitu. Izan ere, ikuspegi horrek ez du ulertzen

nola sortu den historikoki bizitza soziala. Hain zuzen, hura komunitate zabaletan garatu da, eta ez dugu gizakiok bakarrik egin.

Beraz, berriz adierazi nahi dugu: gida honek ez ditu zalantza guztiak argitzen eta ez ditu tresna hutsezinak ematen; aitzitik, izan daitezkeen bideak pentsatzeko, eraikitzeko eta eraldatzeko mapa bat da.

Bidaia on!

.

Ikerketa proiektua





Ikerketa proiektu baten osagarriak



Egizu otoitz bidea luze
izan dadin. Anitz udagoiz izan
dadin, zeinetan zein plazerrez,
zein zoriontasunez helduko baitzara
aldeaz aurretik amesturiko portuetara.

"Ithaka", Konstantinos Kavafis

Ikerketa konprometitua beti da sormen prozesu luzea. Horretan, hausnartzeko eta ekiteko eremuak sortzea da lehentasuna, eragiten diguten arazoak eraldatzeko helburuz. Baina eraldaketa hori beti da


prozesu amaigabea, eta, hortaz, ekintza ordenatu behar dugu, gure helburuak ez ahazteko.

Jarraian, unibertsitateek eta erakunde finantza-tzaileek eskatu ohi dituzten ikerketa-proiektuen ohiko osagarriak aurkeztuko ditugu. Atal horietako bakoitza besteekin lotuta dago. Beraz, proiektua idazterakoan kontuan izan behar dugu lotura hori.

Halaber, kontuan hartu behar dugu proiektua aurkezteko ordena ez dela idazteko ordenaren berdina. Gida honetan nabarmenduko dugu nola diseinatu ikerketa bat ezagutza kiritikoa eta eraldatzaileria sortzeko, errespetuzko elkarriketa prozesuen bitartez eta kolektiboekin, komunitateekin eta erakundeekin kolaboratuz. Azken horiek, beren

eguneroko ekintza-prozesuak aurreratzen dituzte (Arnosó et al., 2020: 78).

Ikerketa-proiektuek eredu eta formatu asko izan baditzaizkete ere, esan dezakegu, oro har, jarraian aipatuko ditugun osagarriak izango dituztela. Eredu hau aztertzea proposatzen dizugu, eta atal hauek zenbateraino ezagutzen dituzun hausnartzea.



Ikerketa proiektu bat idazterakoan hainbat hausnarketa pizten dira. Bide hori hartu aurretik pixka bat hausnartzea proposatzen dizugu: Nondik dator ikertzeko duzun interesa? Gizarte kolektibo, talde edo sektore baten egoerak eragiten dizun kezkatik edo egonezinetik dator? Zeure esperientziatik dator? Besteren batek proposatutako lan bati erantzuteko helburua du? Arazo hori jasaten duten pertsonekin hitz egin duzu?

Ariketa:

Zure ustez, zein izan beharko litzateke proiektuaren atal bakoitza idazteko ordena zure ikerketa-prozesua diseinatzeko momentuan? Nondik hasiko zinateke? Zein izango litzateke idazteko ibilbidea?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zer ikertu nahiko zenuke une honetan? Zein da zure interesa edo ikergaia?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua

Ikertu nahi duzun arazoa jasaten duten lagunek edo kolektiboek zure interesaren berri al dute? Haiekin hitz egitea pentsatu duzu?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....



Osagarriak


Oharrak





lkerketa proiektu bat idazteko ibilbidea

Esandakoa kontuan hartuta, zure proposamenaren idazketa prozesurako ordena proposatzen dizugu jarraian. Kontuan izan lehen proposatutako aurkezpen ordena ez dela idazketa prozesurako proposatzen dizugunaren berdina. Agian, argiagoa izango da kasu batzuetan beste batzuetan baino.



Gogoan izan! Atal guztiak lotuta daude, ez dira formulazio bakanak, baizik eta hausnarketa baten elementuak, elkarri lotzen eta eragiten diotenak. Ikerketa proposamena idazteak arazoaren inguruan dugun ezagutza argitzeko helburua du: zer egin nahi dugun, norekin egin nahi dugun eta zenbateraino aurreratu dute beste ikertzaile batzuek gai horretan.



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Arazoaren planteamendua

Arazoa planteatzea lehenengo urratsa da, eta ikerketa proposamenaren mamia izango da. Dokumentazioaren eta berrelikadura kritikoaren esperientziak elikatutako prozesu dinamikoa denez, etengabe berrikusi eta moldatu behar dugu idazketa prozesuan zehar

Ikerketa arazoa galdera gisa lantzen da beti. Lehen urratsa galdera hori pentsatzea da. Horretan adierazi behar dugu zer ezagutu nahi dugun, non eta norekin? Hurrengo urratsa arazoaren planteamenduaren idazketan aurrera egitea da, eta, horretan, galdera testuinguruan jarri beharko dugu.

Formulazio biak argiak izan behar dira, galderari zentzua ematen dioten alderdi geografikoei, historikoei, sozialei, ekonomikoei eta kulturei dagokienez. Aldi berean, testuinguruaren heterogeneotasuna eta hura osatzen duten harremanak, tentsioak eta eragileak erakutsi behar ditugu, eta erromantizazioak edo irakurketa estereotipatuak ekidin.

Kontuan izan! Zenbat eta hobeto ezagutu ikertu nahi dugun testuingurua eta zenbat eta handiagoa izan bertakoekin dugun harremana, orduan eta argiagoa izango da galderari dagokion guztia. Zenbat eta txikiagoa izan gure ezagutza, orduan eta azalekoagoa izango da arazoaren ulermen maila.

Aurrerago, proiektuaren beste osagarri batzuetan aurrera egin ahala, galdera aldatuko da, eta zehatzagoa izango da.

Gogoan izan! Galderan erabilitako kategoriek eta terminoek funtsezko lekua izango dute esparru teorikoan, helburuetan eta metodologian. Garrantzitsua da landuko diren kategoriak galderaren formulazioan adieraztea, modu argi eta zuzenean.

Adibide gisa hartuko dugu Estefanía Ciroren dokto-re-tesiko ikerketa galdera (2016: 13).

Nola sortzen dituzte nekazariak “ilegal”-tzat hartutako jarduera baten legitimitate zentzuak? Honako hau ere proposatzen du: nola eta zein

prozesuren bidez ulertzen dute nekazariak koka laborantza bizibide legitimo gisa [Caquetá departamenduan]?

Ainhoa Zugadirena ere ikus dezakegu (2023: 8):

Nolakoa da EBk Kolonbian garatu eta ezarri duen bakegintza-eredua?

Elkarrizketarako eremuak sortu behar ditugu, solaskideen –hau da, ikerketa interes berdinak dituzten lagunen, erakundeen eta lankideen– galderak eta iradokizunak jasotzeko. Ez dugu guk bakarrik ikertzen.

Garrantzitsua! Ikerketa arazoak, ahal dela, tartean dauden komunitateen eta lagunen kezka, galdera eta interesetatik sortu behar dira, ez

akademia barruko galderetatik. Ikerketa kritikoak etengabe hausnartzea proposatzen digu, hain zuzen ere, ikerketak berak akademian eta, batez ere, komunitateen barruan duen potentzial eraldatzaileari buruz.

Ikuspegi kritiko batean, ezin dugu ahaztu nola sortzen eta lotzen diren desparekotasunak hainbat eskalatan, baita nola horrek pribilegioak sostengatzen dituen ere.

Gakoa! Gure planteamendu bakoitzaren atzean jarrera politiko bat dago.



Oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Planteamendua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua





Helburuak

Behin galdera eginda, oso garrantzitsua da helburuak zehaztea, horiek proiektuaren iparrorratz edo gidari baitira. Helburu orokorra eta espezifikoak ikerketaren xedeari begira ezartzen dira, eta aditz baten bitartez adierazten dira (identifikatzea, aztertzea, deskribatzea, ikertzea, etab.).

Ikerketa galdera abiapuntu hartuta, helburu orokorra formulatuko dugu. Gero helburu espezifikoak. Horiek helburu orokorra lortzen lagunduko dute, eta ez dira hura baino zabalagoak izan behar.

Helburuak galderarekin lotzen dira, baita esparru teorikoarekin ere; izan ere, proiektuaren azterke-

ta-kategoriak argitzen dituzte eta metodologia zehazten dute.

Gogoan izan! Helburu orokorrean, hain zuzen, ikerketa galderan agertzen diren azterketa kategoria berberak agertu behar dira.

Batzuetan, gure jarrera zein den aztertzen laguntzen digu helburuak. Zure interesetarako garrantzitsuak diren galderen artean, honako hauek egin ditzakezu:

Helburu horiek lantzeak sozialki esanguratsuak diren egoerak esploratzeko aukera ematen dit? Egindako galderek genero ikuspegia, ikuspegi intersektzionala eta kulturartekotasun kritikoko ikuspegia dituzte?

Hona hemen adibide bat:

Estefanía Ciroren ikerketa-galderari buruzko adibi-dea hartuta, ikus dezagun nola eraikitzen duen bere helburua:

Aztertzea nola ulertzen duten nekazariak kokaren laborantza lan legitimo gisa. Edo, beste era batera esanda, esploratzea nola legitimatzen den bizibide gisa “ilegal”-tzat hartutako jarduera hori (Ciro, 2016: 13).

Beste alde batetik, Julia Castok (2023: 5) honako helburu espezifiko hauek proposatzen ditu:

Memoria historikoaren eta trantsizioko justiziaren arteko harremana aztertzea, baita hezkuntzak gatazka armatuetako eta diktaduretako

memoria historikoaberreskuratzeko prozesuetan duen eginkizuna ere.

Espainiako Estatuko legerian memoria historikoari buruz dauden hezkuntza-neurriak eta beren ikuspegia aztertzea, baita hezkuntza formalean nola txertatzen diren ere.

Memoria historikoarekin lotutako hezkuntza esperientziak aztertzea, hezkuntza formalean zein sistema araututik kanpo dauden gizarte eremuetan.

Hezkuntza esperientzia horiek –arautuak eta arautugabeak– aztertzea, ikuspegi feminista batetik, eta mugimendu feministak –Hegoalde globalekoak ere– memoria historikoari egindako ekarpenak aintzat hartuta.

Hausnartzeko: Ba al duzu zure ikerketa-galderaren lehen formulaziorik? Landu nahi duzun eremura hurbildu zara? Harremanetan zaude ikerketaren subjektu diren pertsonekin?

Horietan aurrera egin baduzu, ikerketaren helburuen lehen zirriborro bat egin dezakezu.



Oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Lan hipotesia

Behin arazoaren planteamendua eta helburuak idatzita, orain pentsatu behar duzu zein izan daitekeen egindako galderaren erantzun bat. Espero duzun erantzuna edo erantzunik probableena izango da hipotesia.

Gogoan izan beti zure ikerketa galdera!

Hipotesia idaztean galderari dagozkion lehen zaitasunak identifika ditzakegu. Hortaz, maiz, galdera une horretan birformulatu behar izaten da.

Galderaren atzean dauden suposizioak azaleratzeko egiten ditugu lan hipotesiak. Gure aurreiritziak dira, eta argi adierazten dute nola ulertzen dugun arazoa orain. Horrek, bada, gure ulertzeko moduaren

atzean dauden aurretiko kontzepzioekin kontuz jokatzera garamatza; izan ere, horiek isuri gisa ager daitezke proiektuaren formulazioan edota exekuzioan.

Hipotesiak idaztean kontuan hartu behar ditugu zenbait kontu: lehenik, horiek modu argian formulatu behar ditugula; bigarrenik, egoera behagarriekin lotuta egon behar direla; eta, hirugarrenik, horiek frogatzeko aukera ematen duten teknikekin lotu behar ditugula (Lizcano, 2005: 105).

Zein izan daiteke zure ikerketa galderaren erantzuna?

Agian, ikerketa amaitzean erantzuna ez da izango hasieran pentsatu duguna; hori, ordea, ez da inolako arazoa ikerketarako, ez larritu.

Hona hemen adibide bat:

Begiratu helburua!

2011an hasitako gerraren ondorioz (eta autogobernu berriaren ondorioz), Siriaren ipar-ekialdean sortu den elkarte-ehuna aztertzea, eta ikertzea emakumeen erresistentziaren zer erakunde sortu diren.

Egileak hainbat hipotesi planteatzen ditu, hona hemen bat:

H1: Kurdistaneko gerrako eta blokeo ekonomikoko testuinguruan, Rojavako emakumeek hainbat genero-rol eta emakumeekin lotutako hainbat estereotipo haustea lortu dute, eta garrantzia eta ordezkaritza politikoa lortu dute eta erabakietan parte hartzen dute (Jauregui, 2023: 7).



Oharrak

Lan hipotesia

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua





Esparru teorikoa / Erreferente kontzeptuala

Atal honetan, aurrekoetan bezalaxe, galderatik eta arazoaren planteamendutik abiatuko gara. Helburua ez da azterketa-kategorien edo horien definizioen zerrenda aurkeztea; aitzitik, interesgarriena da kategoria horiek ikerketa-arazoa ulertzen eta azaltzen lagunduko diguten tresna gisa pentsatzea.

Galdera bizkarrezurra da, eta erreferente kontzeptuala eskeletoaren gainontzekoa, proiektuari eusten dion oinarria.

Hala, kategoriak galderari erantzunak bilatzen laguntzen diguten lente teorikoak dira. Hortaz, ondoen enfokatzen duten horiek bilatu behar ditugu. Horretarako, funtsezkoa da dagoen literatura ezagutzea, eta testu eta egile klasikoak, garaikideak eta kritikoak kontsultatzea.

Idaztean, galderan sartutako kategoriak eralda daitezke, bai beste batzuk hobeto moldatzen direlako, bai gure interesa beste norabide batean doalako. Une horretan dena argi izan nahiko bagenu ere, idazteko prozesua etengabe hausnartzeko eta moldatzeko prozesua da.

Ikus ditzagun bi adibide:

Irene Muedraren ikerlanak (2025), esate baterako, funtsezko zenbait kategoria identifikatzen ditu.

Lan horretan, helburuak espazioa ulertzera bideratzen dira. Muedrak honela adierazten du helburu espezifikoetako bat:

Auzoko bizi-espazioa esploratzea, zehazki, bertan dauden segurtasun (eta segurtasunik ezezko)

pertzepzioak eta mugimendu asoziatiboak espazioaren ekoizpenean duen eginkizuna. (Muedra, 2025: 5).

Kasu horretan, Irene Muedrak Henri Lefebvre hartzen du abiapuntu espazioa eta haren ekoizpena azaltzeko. Beraz, espazioa da kategoria nagusia, Lefebvreri jarraituz.

Ainhoa Zugadiren ikerketa-galderara itzulita, ikusten dugu bere esparru teorikoan (2023: 8) bakearen eraikuntza dela kategoria nagusia. Irakurtzen badugu, ikusiko dugu Zugadik hasierako deskribapenaren arabera definitzen duela kontzeptua. Halaber, erakusten du hori nola eraldatu den eta non kokatzen den bera ikerketan aurrera egiteko.

Kontuan izan! Kategoriak alda daitezke idazketa prozesuan ezagutza berriak eskuratzen ditugun heinean.

Ikuspegi kritikoa ez galtzeko, kontuan izan honako galdera hauek:

Lantzen ari zaren esparru teorikoak kritikaren bat egiten al dio Mendebaldeko paradigma antropozentrikoari? Pentsamendu androzentrikoa eta etnozentrikoa deseraikitze beharra adierazten du? Arazoaren planteamenduak desparekotasunak nola sortzen eta lotzen diren esploratzeko aukera ematen dizu? Nondik datoz zure iturri bibliografikoak? Hegoalde globaleko idazleen erreferentziarik sartu duzu?

Oro har, Iparralde globalean idatzitako eta argitaratutako ikerketak irakurtzeko joera dugu, eta Hegoaldean egindakoak alde batera utzi ohi ditugu. Hortaz, zenbait ikuspegi kritiko esplora ditzakezu, hala nola garapenaren kritika (Escobar, 2017), estraktibismoaren azterketa (Gudynas, 2015, 2011), feminismo komunitarioak (Guzmán, 2019) edo herri hezkuntza (Freire, 2005).



Oharrak

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Aurrekariak

Idazketa prozesuaren hurrengo urratsa aurrekariak eraikitzea da. Horretarako, gure galderari lotutako iturrien berrikuspena egingo dugu. Honako galdera hau egin dezakezu: Zer ikertu da aldeztatik interesatzen zaidan gai horri buruz? Zer arazo landu dira eta nola?

Gogoan izan! Aurrekariak ez dira esparru teorikoa. Atal honetan aztertuko dugu zer ikertu den, zeintzuk diren ikerketaren emaitzak, ez teoria derrigorrez.

Errealitate horretatik gertu dauden ikerketa akademikoak sartu behar ditugu, eta horiek hutsak eta ekarpenak identifikatu. Ikertuko diren proze-

suetatik eta erakundeetatik sortutako ikuspegia eta ezagutza sar ezazu, ez soilik idatzizko dokumentuak, baizik eta ikus-entzunezkoak ere, edota tokiko artxiboak, ahozkoak eta idatzizkoak.

Kontuan izan! Egitura logikoa izan behar da. Ikertu den horretatik zure ikerketa-interesera eraman behar duzu irakurlea. Ordena gaien araberrakoa izan daiteke, edo orokorretik espezifikora, kasuaren arabera.

Ondo pentsatu zer iturri erabiliko duzun. Esparru teorikoan bezalaxe, garrantzitsua da zer ikerketa sartuko dituzun erabakitzea. Pentsa ezazu zer tokitik idatzi dituzten aipatzen dituzun erreferentziak, nor diren horien egileak eta zer ondorio dituen erreferentzia bat edo bestea erabiltzeak.

Honako galdera hauek egin ditzakezu: Sartu-tako lanek botere-harremanak eta horien ondorioak nabarmentzen dituzte? Testuinguruak alderaketa egokiak egiteko aukera ematen dit nire arazoa hobeto ezagutzeko? Tokiko egileak sartu dituzu?

Honako hau gomendatzen dizugu:

Irakur ezazu proiektu bat edo ikerketa baten emaitzak, eta hausnartu nola egin dituen bere aurrekariak.

Interesatzen bazaizu, ikus Ingrid Bolívarren
“Discursos emocionales y experiencias de la política: las FARC y las AUC en los procesos de negociación del conflicto (1998-2005)”

master-tesia (2006). Bolívarrek María Victoria Uriberen, Herbert Braunen, Fernán González, Catherine Legranden ikerketak eta beste ikerketa batzuk erabiltzen ditu honako hauen inguruko eztabaida zabaltzeko: “koiuntura desberdinetan, baina bereziki, borroka armatuko testuinguruetan, identitate politikoei ematen zaizkien izaerak” (Bolívar, 2006: 4).



Oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

.....

lkerketa proiektua





Justifikazioa

Berriz ere, ikerketa-galderara itzultzea komeni da. Justifikazioak ikerketaren egokitasuna adierazi behar du, "konbentzitu" behar du, ikerketa-proposamena interesgarria eta beharrezkoa dela erakutsi behar du.

Nola egin aurrera? Honako galdera hauek egin ditzakezu: Ikerketak ezagutzako hutsune bat betetzen du? Dauden eztabaidak ezeztatzen edo zabaltzen ditu? Teoria berriak eskaintzen ditu?

Galdera horiek justifikazioa eraikitzeko lagungarriak izan daitezke. Atal honetan azal dezakezu zergatik aukeratu duzun gaia, eta argitu ez dela

neutrala. Horrek esan nahi du zure jarrera ideologikoa, etikoa eta pertsonala adieraz dezakezula.

Analitikoki, bi justifikazio mota bereiz daitezke:

Diziplina egokitasuna, hau da, ikerketak gure diziplinan (esate baterako antropologian edo pedagogian) duen garrantzia zehaztea

Bere aldetik, egokitasun sozio-politikoa, hau da ikerketak duen garrantzi politikoa edo soziala (nori laguntzen dion, zergatik). Ikerketak gizarte-arazo bat konpontzen laguntzen du?

Kontuan izan! Justifikazio mota biak dira garrantzitsuak. Ez da proposamena saltzea bakarrik, egokia dela erakutsi behar dugu.

Honako galdera hauek egin ditzakezu:

Gaia ikerketak proposatzen duen ikuspegitik lantzeak gizarte eraldaketarako bideak esploratzeko aukera ematen du? Ikerketaren orientabideak errealitatea eraldatzeko helburuan laguntzen du?

Adibide gisa, ikus dezagun Xabier Pérezen master tesiaren zati hau:

Lan honen gaiaren aukeraketa interes pertsonal eta akademikoen emaitza da. Gizon gisa, feminismoan eta genero gaietan trebatu naiz, eta maskulinitateei buruzko ikerketetara hurbildu naiz. Hala ere, ikusi ahal izan dut hori ez dela ikerketa-eremu oso ezaguna eta mamitua. Hortaz, hurbilketa teoriko txiki bat egin nahi dut ikerketa horietara. Beste alde batetik,

genero berdintasunaren aldeko aldaketak beharrezkoak dira erakunde guztietan, eta, batez ere, GGKEetan, dela erakundeen barnera, dela garatzen dituzten proiektuetan. Zentzu horretan, lankidetzaren arlo horretan egindako lana ezagutu nahi dut, batez ere, euskal GGKEetan (...) (Pérez, 2021: 3).



Oharrak

Justifikazioa

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua





Metodologia / Esparru metodologikoa

Atal honetan argiago izango dugu zer nahi dugun ikertu eta, batez ere, nola egingo dugun. Berriz ere, garrantzitsua da galderara itzultzea; izan ere, atal honetan azalduko dugu galderari nola erantzun. Metodologiak erakutsi behar du zer informazio behar dugun ikerketa-galderari erantzuteko, eta nola jasoko, prozesatuko eta aztertuko dugun informazio hori.

Gogoan izan! Metodologia ez da tekniken edo tresnen zerrenda bat. Erakutsi behar du nola, norekin, noiz eta noiz arte egingo dugun ikerketa. Hala-ber, kontuan hartu behar ditugu landa-lana egingo den testuinguruaren baldintzak eta erronkak.

Planteatutako helburu espezifiko bakoitzari dagokionez, egin itzazu galdera hauek: Nola lortuko dut helburu hori? Zer teknikarekin? Zer datu behar dut? Erantzunetatik abiatuta, metodologia eraiki dezakezu.

Ikerketaren subjektu/objektu dikotomia hausten duen eta subjektuen eta kolektiboen hitza ezagutzera ematen duen proposamen metodologiko batean, garrantzitsua da pertsonak "objektu" edo "informatzaile" gisa ez ikustea. Hala, ikuspegi hori subjektuek proiektuan parte hartzeko moduan adierazi behar da.

Sar itzazu hainbat jardura metodologiko, esate baterako, horretan parte hartzen duten lagunei zure proiektua, horren helburua eta emaitzen norakoa ezagutzera ematen dizkieten jardura kolektiboak.

Kontuan izan! Garrantzitsua da zure solaskideek prozesuaren nondik norakoak ezagutzea. Azal iezaiezu proiektua, eta hura komunikatzen lagunduko dizuten aurkezpen argiak egin itzazu. Ikerketa amaitutakoan, aurkez iezaiezu emaitzak parte hartu duten lagunei, erakundeei eta komunitateei.

Garrantzitsua: Feminismoak, teoria kritiko gisa, gizarte eraldaketarako tresna kontzeptualak eta metodologikoak eskaintzen ditu, ezagutzeko modu horizontalagoak pentsatzeko eta abian jartzeko. Gorputza eztabaidaren, ekoizpen narratiboen eta diskurtsoaren azterketa feministen erdigunean kokatzen duten metodologiak sar ditzakegu gure ikerketa-prozesuetan.

Esate baterako, Muns Ynzengaren master-tesia aztertzean (2021), ikusten dugu toki nagusia ematen diola feminismoari.

Hegoaldetiko erreferente metodologikoak: XX. mendearen erdialdean, Kolonbian, Orlando Fals Bordak Ikerketa-Ekintza-Partaidetza (IEP) metodologia proposatu zuen, eta horrek gizarte zientzien arloetako hainbat ikerketa inspiratu ditu.

Proposamen hori hobeto ezagutu nahi baduzu, Causa Popular, ciencia popular. Una metodología del conocimiento científico a través de la acción (1972) lana ikus dezakezu. Hura Víctor Daniel Bonilla, Gonzalo Castillo eta Augusto Librerosekin batera idatzi zuen. El problema de cómo investigar la realidad para transformarla por la praxis (1997) liburua ere ikus dezakezu.



Oharrak

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

Opciones de título: Género y feminismo
organizacional en cooperación





Izenburua

Aurreko atalak landu ondoren, argiago egon behar-ko da landuko dugun gaia, eta, hortaz, errazagoa izango da lanaren izenburua zehaztea. Seguruenik, gainontzeko atalak idaztean, izenburuari buruzko ideiak sortuko ziren; komeni da horiek idaztea, orain lagungarriak izango baitira.

Oro har, proiektuaren izenburua zuzena eta zehatza izan behar da.

Gogoan izan! Hori da irakurleak ikusiko duen lehenengo gauza; lehen irakurketa batekin ikergaiaren ideia bat izan behar du. Orain idaztea proposatzen dizugu; izan ere, dagoneko badakizu zer egin nahi duzun eta modu argian transmiti diezaiekezu irakurleei.

Izenburua idazteko zenbait osagarri erabil ditzakezu, hala nola ikergai nagusia, populazioa, testu inguru geografikoa, aldia eta ikerketa mota. Izenburua jartzeko ikerketa galdera eta helburu orokorra berrikusi beharko ditugu.

Egin ezazu ideia-jasa! Irakurri beste batzuen proposamenak! Kontuan izan ikerketan parte hartuko duten lagunen iritziak!

Izenburuak deskriptiboak, galderazkoak, adierazpenezkoak edo sormenezkoak izaten dira. Deskriptiboa da ohikoena. Argia izatea da garrantzitsuen.

Adibide gisa:

María Clemencia Ramírez (2001). Entre el Estado y la Guerrilla: identidad y ciudadanía en el Movimiento de los Campesinos Cocaleros del Putumayo.

María de Muns Ynzenga (2021) "Género, feminismos y cambio organizacional en cooperación internacional. Cuaderno de viaje". Gradu Amaierako lana.



Oharrak

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Jardueren kronograma

Proiektuaren hurrengo urratsa kronograma osatzea da. Aurreko atalak ez bezala, hau ez da testu bat; aitzitik, adierazpen bisuala izan daiteke, hala nola koadro edo diagrama bat, ikerketaren garapenean garrantzitsuak diren jarduerak proiektuaren denboran zehar ordenatzen dituenak.

Gogoan izan! Jarduera bakoitza komunitatearekin edo erakundearekin kontsultatu behar dugu, hura deskribatu eta bere helburua azaldu.

Zergatik da garrantzitsua? Ikerketaren momentuak planifikatzen lagunduko digulako. Gogoan izan beti dugula epemuga bat. Kronogramak jarduerak

antolatzen eta kontrolatzen laguntzen digu, baita aurrerapenak ikusten ere.

Nola egin dezakegu? Ikerketaren faseetan edo etapetan, jarduera espezifikoetan eta estimatutako denboran oinarrituta egin beharko dugu.

Faseen arabera pentsatzen badugu:

Lehen fasea: Prestaketa (ikerketa proposamena idaztea. Zenbat denbora beharko duzu proiektua egiteko? Ataletan bana dezakezu.

Bigarren fasea: Landa-lana. Jarduerak eta bakoitzak hartuko duen denbora zehaztu. Kontuan har itzazu baimenak eta datuen bilketa.

Hirugarren fasea: Datuen azterketa. Elkarriketak transkribatzea, argazkiak aukeratzea, informazioa kodifikatzea eta sistematizatzea eta aurkikuntzak interpretatzea.

Laugarren fasea: Azken txostena edo gradu edo graduondoko amaierako lana idaztea.

Ikerketa proiektua

Fasea	Jarduera
Plangintza	Helburuak zehaztea
	Literatura eta aurrekariak aztertzea
	Metodologia diseinatzea
	Proiektua onartzea
Landa	Baimenak / sarbidea lortzea
	Elkarrizketak eta behaketa egitea
Azterketa	Datuak transkribatzea
	Kodifikazioa eta azterketa kualitatiboa
Idazketa	Txostena / Kapituluak idaztea
	Berrikuspena eta edizioa

Jardueren kronograma

	1. hil.	2. hil.	3. hil.	4. hil.	5. hil.	6. hil.	7. hil.	8. hil.	9. hil.
	x								
	x	x							
		x	x						
			x						
				x					
					x	x			
						x	x		
							x	x	
								x	
								x	x



Jardueren kronograma

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikerketa proiektua





Sarrera

Sarrera dokumentuaren hasieran egoten bada ere, idazten den azken ataletako bat da.

Kontuan izan! Testuaren ordenan, lehen atala da, beraz, funtsezkoa da irakurlearen arreta lortzeko. Ikerketa proposamenerako gida bat izan behar da.

Normalean, sarrerak modu orokorrean azaltzen du ikerketaren zer, nola, non eta noiz. Zentzu horretan, hurrengo ataletan sakonago landuko dugunaren ikuspegi panoramikoa eskaintzen du.

Gogoan izan! Ez da laburpen bat, ibilbide-orria baizik. Lanaren testuingurua eta garrantzia azaltzen du, eta irakurleak aurkituko duen horren

berri ematen du. Inbutu gisa idatz dezakezu; kon-
tu orokorretatik hasi eta gero espezifikatu. Komu-
nikazioa garrantzitsua da. Argitasunez adierazi,
publiko zabal batera heldu nahi baduzu. Ez ahaztu
ikerketan parte hartu duten lagunek irakurri
nahi izango dutela agian!

Labur esan behar dugu erakutsi nahi duguna.
Berriz ere, argitasuna eta zehaztasuna funtsezkoak
dira. Elementu guztiek funtsa izan behar dute; ez
luzatu gehiegi, ondo erabili aditz-denborak, eta
lokailuak erabili irakurketa errazteko.

Ez larritu ez bazaude guztiz pozik lehenengo
bertsioekin, ikerketa-prozesuaren parte da.

Kontuan izan! Ezagutza guztia dira kokatuak, argi utzi nondik hitz egiten duzun; hau da, akademiatik, erakunde batetik, genero ikuspegitik, posizio instituzional batetik edo ikuspegi teoriko jakin batetik.



Oharrak

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Aurrekontua

Hurrengo urratsa aurrekontua egitea da, hau da, ikerketaren kostuak. Hori egiteko, argi izan behar dituzu ikerketarako egin behar dituzun gastuak. Hain zuzen ere, lehenengo jardueren eta materialen zerrenda egin behar duzu, eta, horretan, ikerketaren gastuen estimazio zehatza.

Zergatik da garrantzitsua? Behar diren baliabideen ikuspegia garatzen laguntzen du, baita proiektuaren bideragarritasunarena ere, ekonomiari, ezagutzari, arlo pertsonalari eta denborari dagokienez.

Zer alderdi hartu behar ditugu kontuan?

Lehenik, errealista izan behar zara kostuei dagokienez, eta merkatuko balioak kontuan hartu, kostuak gutxiegi edo gehiegi balioetsi gabe. Gastuak justifikatu behar dituzu, hau da, bakoitzak bere zergatia izan behar du. Kontuz monetaren erabilerarekin, beti berbera izan behar da, dela dolarra, dela pesoa, dela euroa.

Zeintzuk izan daitezke kategoriak? Hori ikerketa motaren arabera da, baina honako hauek dira ohikoenak: giza baliabideetako gastuak (laguntza edo audioen transkripzio langileak), landako gastuak (bidaiak eta elikadura), materialak eta hornidurak (liburuak edo ekipoen alokairuak), eta, kasu batzuetan, argitalpen gastuak ere.




Oharrak

Ikerketa proiektua

Gastuaren kategoria	Deskribapena
Giza baliabidea	Transkribatzailea
Bidaia eta Landa	Padillarako garraioa
	Padilla barruko garraioa
	Elikadura landan
Materialak	Landa koadernoak
	AA pilak
	(Beste kategoria eta item batzuekin jarraitzen du)
Guztizko partziala	
Ustekabeko gastuak (% 10)	
Guztizko orokorra	

	Neurri unitatea	Kopurua	Balio unitarioa (COP)	Guztira (COP)
	Ordua	20	25.000	500.000
	Bidaia joan-etorria	4	50.000	200.000
	Eguna	10	15.000	150.000
	Eguna	10	30.000	300.000
	Unitatea	2	15.000	30.000
	Lauko paketea	3	10.000	30.000
			xxxxx	xxxxx
			xxxx	xxxxx
			yyyy	yyyy

Ikerketa proiektua





Eraldaketa bidera- tuta ikerketa kritiko baterako erreferenteak

Proiektuaren idazketaren azken atala landu aurretik, parentesi txiki bat egin nahi dugu gogorarazteko gida honen helburuetako bat gure ikerketa-zereginari buruz etengabe hausnartzeko proposatzea dela. Ikuspegi horrek ikerketa egiteko moduen eraldaketa ekarri du. Kasu honetan, izaera deskriptiboa edo azalpenezkoa gainditzen du aldaketa eta emantzipazioa du bilatzeko.

Ikerketa mota horren parte izateko erabakia idazketa prozesuan zehar ere har dezakezu. *Gogoan izan!* Zure proiektuaren idazkerak aukeratu duzun ikerketa

mota adierazi behar du, eta hori atal guztietan ikusi behar da. Jarraian, ikerketa eraldatzailea egi-tea erabaki duten ikertzaileen zerrenda labur bat aurkeztu nahi dizugu, ez baititugu horiek aipatu orain arte.

Silvia Rivera Cusicanquik tokiko ezagutzak nabarmendu ditu honako argitalpen hauetan: Ch'ixinakax utxiwa: una reflexión sobre prácticas y discursos descolonizadores (2010a) eta Oprimidos pero no vencidos (2010b). Walter Mignolok "mugako pentsamendu" nozioa landu du Historias locales/diseños globales: colonialidad, saberes subalternos y pensamiento fronterizo (2003) lanean. Linda Tuhiwai Smithek, A descolonizar las metodologías (2016) lanean, tokiko ezagutzei ematen zaien garrantziari buruzko pistak

ematen dizkigu. Catherine Walshek, Pedagogías decoloniales: Prácticas insurgentes de resistir, (re)existir y (re)vivir (2017) liburuan, pedagogia ekintza-eremu gisa ezagutzea proposatzen du.

Bake ikasketen eremuan, John Paul Lederachek, besteak beste, eraldaketarako ikerketaren alde egin du Building Peace: Sustainable Reconciliation in Divided Societies (1999) lanean. Miriam Jimenok Después de la masacre: emociones y política en el Cauca indio eta Etnografías contemporáneas: trabajo de campo lanak argitaratu ditu, azkeneko hori Sandra Liliana Murilloarekin eta Marco Julián Martínezekin batera. Lan horietan hainbat egile aipatzen dituzte.

Halaber, Pablo González Casanovaren Las nuevas ciencias y las humanidades. De la academia

a la política lana gomendatzen dizugu akademiak gizartearekin duen konpromisoaren gaian sakondu nahi baduzu.

Patricia Hills Collinsek interseksionalitatearen gaia garatu du, feminismotik abiatuta, eta *Black Feminist Thought* (2000) liburuan jaso du. Arlo horretan ere, bell hooks da aipatzekoa, *Enseñar a transgredir* (2021) eta *Teoría feminista: de los márgenes al centro* (2020) lanekin. Latinoamerikan, Ochy Curiel (2009), Rita Segato (2003) eta beste feminista batzuek zapaldutako ahotsei entzun behar diegula nabarmendu dute. Horien antzera, Julieta Paredesek (2013), Boliviako testuingurutik, feminismo komunitarioa landu du.

Halaber, honako eremu akademiko hauei begirada bat botatzea gomendatzen dizugu: Red de Investigadores en Pedagogía Crítica, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales (CLACSO), Centro de Investigación y Educación Popular (CINEP) eta Grupo Latinoamericano de Estudios, Formación y Acción Feminista (GLEFAS). Azken horrek, ikerketa kritikoa eta eraldatzailea sustatzen du. Gainera, Asociación Latinoamericana de Antropología (ALA) dugu, Latinoamerikan eta Kariben egindako antropologien proiektuarekin.

Gogoan izan! Beste ikerketa eta proposamen batzuek irakurtzeak geure ikerketan aurrera egiteko pistak ematen dizkigu. Horrelako dokumentuak, bada, aipatu ditugun erakundeen eta unibertsitateen datu-baseetan aurki ditzakezu. Honako hemen aukera batzuk:



Caucako Unibertsitatearen gordailua
<http://repositorio.unicauca.edu.co:8080>



Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa
Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari
Buruzko Ikasketa Institutuaren Liburu-
tegi Digitala
<https://biblioteca.hegoa.ehu.eus/busqueda>



CAPAZ bakearen aldeko institutu kolon-
biar-alemaniarren argitalpenak
<https://instituto-capaz.org/publicaciones>



Hego Kolonbiako Unibertsitatearen
gordailua
<https://repositoriousco.co>

Halaber, hainbat arlo, argitaletxe, ikuspegi eta tokitako argitalpenak dituzten datu baseak daude. Hona hemen horietako batzuk:



Scielo
<https://scielo.org/es>



Redalyc
<https://redalyc.org>



CLACSOren liburutegi birtuala
<https://biblioteca-repositorio.clacso.edu.ar>



Dialnet

<https://dialnet.unirioja.es>



Asociación latinoamericana de antropología -ALA-

<https://asociacionlatinoamericanadeantropologia.net/portal>



Antropologías hechas en América Latina y El Caribe

<https://asociacionlatinoamericanadeantropologia.net/portal/coleccion-antropologias-hechas-en-america-latina>



Oharrak

Ikerketa proiektua

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





Bibliografia edo aipatutako erreferentzien zerrenda

Bibliografia osatzea proiektua idazteko azken urratsa da, baina kontuz ibili behar gara hori egiteko orduan. Izan ere, proiektua idazten hasteko momentutik izan behar dugu buruan; hau da, lehen ataletik ere, horretan ikerketaren bat aipatzekotan.

Hala, ikertu nahi dugun gaia bere konplexutasun osoan ulertzen lagunduko diguten erreferentziak erabili behar ditugu. Arreta jarri beharko dugu hainbat tokitako dokumentuak, txostenak, artikuluak edo

liburuak erabiltzen ditugula ziurtatzeko. Aniztasun horrek hartu behar ditu lurralde desberdinetako egileak; kolektibo ez-hegemonikoek egindako argitalpenak eta materialak, edo feminismoa, arrazakeriaren aurkako borroka, kulturartekotasuna, dekolonialtasuna edo ekologia politikoa bezalako ikuspegi kritikoetatik egindakoak.

Gogoan izan! Testu barruko erreferentziak beti doaz parentesi artean, eta egilearen abizena eta argitalpenaren urtea adierazi behar dituzte.

Aipamen testuala erabiltzen baduzu, aipamena zein orrialdetan agertzen den jarri beharko duzu, adibidez: (Freire, 2005: 95). Aipamen horiek kako-

txen artean idatziko ditugu (""), oro har, baina hiru lerrotik gorako aipamenak modu berezian adieraziko ditugu. Hain zuen, testua aparte idatziko dugu, zentratua eta lerroen artean tarte txikiagoa utzita.

Kontuan izan! Aipamenak egiteko hainbat sistema daude: Chicago, APA, Harvard eta beste batzuk. Normalean, Chicago eta APA dira erabilienak. Bat edo beste erabiltzea gure esku dago, baina proiektua aurkeztuko diogun erakundearen eskakizunak kontuan hartu beharko ditugu. Gogoan izan! Ez nahastu inoiz sistemak.

Hona hemen erreferentzien zerrendarako zenbait pista (APAre 7. edizioko arauak):



Abizena, Izena. (Urtea). Izenburua (letra etzanez): Argitaletxea.

Bi egileren liburuetan:



Abizena, Izena eta Izena Abizena. (Urtea). Izenburua (letra etzanez): Argitaletxea.

Aldizkariko artikulua:



Abizena, Izena. (Urtea). "Izenburua" (kakotxen artean). Aldizkariaren izena (letra etzanez). Bolumena (Zenbakia): lehen orrialdea-azken orrialdea.



Gida honetan aipatutako testuak erabiliko ditugu adibide gisa.

Hona hemen tesiak edo gradu eta graduondoko amaierako lanak:



Bolívar, Ingrid. (2006). Discursos emocionales y experiencias de la política: las FARC y las AUC en los procesos de negociación del conflicto (1998-2005). [Antropologiako Master Tesia. Andeetako Unibertsitatea].



Casto, Julia. (2023). Estudio sobre la educación para la memoria histórica como medida de justicia transicional. La experiencia en el Estado español. [Garapeneko eta Nazioarteko Lankidetzako Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].




Ciro, Estefanía. (2016). Cultivando coca en el Caquetá: Vidas y legitimidades en la actividad cocalera. [Politika eta Gizarte Zientzietako Doktore Tesia. UNAM].



De Muns, María. (2021). Género, feminismos y cambio organizacional en cooperación internacional. Cuaderno de viaje. [Nazioarteko Lankidetzako eta Hezkuntza Eraldatzaileko Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].



Jauregui, Beatriz. (2023). El papel de las mujeres jurdas de Rojava en el contexto de conflicto armado: aprendizajes sobre el asociaconismo en el noreste de Siria. [Garapeneko eta Nazioarteko Lankidetzako Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].





Muedra, Irene. (2025). La (in)seguridad en la producción del espacio urbano. Una aproximación desde el barrio bilbaíno de San Francisco. [Globalizazioko eta Garapeneko Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].



Pérez, Zabier. (2021). Género, masculinidades y cooperación en las ONGD del País Vasco: el caso de Mundubat. [Garapeneko eta Nazioarteko Lankidetzako Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].



Zugadi, Ainhoa. (2023). El modelo de construcción de paz de la Unión Europea en Colombia. Aportes analíticos para una paz posliberal. [Garapeneko eta Nazioarteko Lankidetzako Master Tesia. Hegoa. Euskal Herriko Unibertsitatea].

Hona hemen liburuak:



Escobar, Arturo. (2019). Autonomía y diseño: la realización de lo comunal. Caucaño Unibertsitatea.



Fals Borda, Orlando. (1997). El problema de cómo investigar la realidad para transformarla por la praxis. Tercer Mundo Editores.



Freire, Paulo. (2005). Pedagogía del oprimido. Siglo XXI.



González Casanova, Pablo. (2017). Las nuevas ciencias y las humanidades: de la academia a la política. CLACSO. https://biblioteca-repositorio.clacso.edu.ar/bitstream/CLACSO/16599/1/Nuevas_Ciencias.pdf



Gudynas, Eduardo. (2015). Extractivismos: ecología, economía y política de un modo de entender el desarrollo y la naturaleza. CLAES.



Guzmán, Adriana. (2019). Descolonizar la memoria, descolonizar los feminismos. Tarpuna Muya.



Hills Collins, Patricia. (2000). Black Feminist Thought. Routledge. <https://negrasoulblog.wordpress.com/wp-content/uploads/2016/04/patricia-hill-collins-black-feminist-thought.pdf>



hooks, bell. (2021). Enseñar a transgredir: la educación como práctica de la libertad. Capitán Swing.



hooks, bell. (2020). Teoría feminista: de los márgenes al centro. Traficantes de Sueños. https://traficantes.net/sites/default/files/TDS_map61_Hooks_web_baja.pdf



Jimeno, Miriam; Sandra Murillo y Marco Martínez (argtz.). (2012). Etnografías contemporáneas. Trabajo de campo. Unibertsitate Nazionala. <https://www.myriamjimeno.com/wp-content/uploads/2009/10/Etnografias.pdf>



Paredes, Julieta. (2013). Hilando fino. Desde el feminismo comunitario. Commons.



Ramírez, María Clemencia. (2001). Entre el Estado y la guerrilla: Identidad y ciudadanía en el movimiento de los campesinos cocaleros del Putumayo. Instituto Colombiano de Antropología e Historia, ICANH.



Segato, Rita. (2003). Las estructuras elementales de la violencia. Quilmeseko Unibertsitatea. <https://mujeresdeguatemala.org/wp-content/uploads/2014/06/LAS-ESTRUCTURAS-ELEMENTALES-DE-LA-VIOLENCIA.pdf>



Tuhiwai Smith, Linda. (2016). A descolonizar las metodologías. Investigación y pueblos indígenas. Lom Ediciones. <https://elizabethruano.com/wp-content/uploads/2019/07/Tuhiwai-Smith-2016-A-descolonizar-las-metodologias.pdf>



Walsh, Catherine. (2017). Pedagogías decoloniales: Prácticas insurgentes de resistir, (re)existir y (re)vivir. Abya-Yala. <https://agoradeeducacion.com/doc/wp-content/uploads/2017/09/Walsh-2013-Pedagog%C3%A1-Das-Decoloniales.-Pr%C3%A1cticas.pdf>

Hona hemen hiru egile baino gehiago dituen liburu bat:



Bonilla, Víctor Daniel et al. (1972). Causa popular, ciencia popular. Una metodología del conocimiento científico a través de la acción. Rosca.

Hona hemen egile bakarreko artikulua:



Lizcano, Francisco. (2005). Guía para facilitar la correcta elaboración de proyectos de investigación en ciencias sociales y humanidades. La Colmena. (45): 98-114.
<https://www.redalyc.org/pdf/4463/446344894013.pdf>

Hona hemen hiru egile baino gehiago dituen artikulua:



Arnosó, Maitane, et al. (2020). Elaboración de trabajos académicos participados y en la grieta: una comunidad de aprendizaje para agentes implicados. *Dilemata*. 12 (22): 77-94. <https://www.dilemata.net/revista/index.php/dilemata/article/view/412000376>

Hona hemen txosten bat:



Curiel, Ochy. (2009). Descolonizando el feminismo: una perspectiva desde América Latina y el Caribe. *Praxi eta Pentsamendu Feministari buruzko Latinoamerikako lehen Mahai-inguruan aurkeztutako txostena*. https://feministas.org/wp-content/uploads/2009/12/Ochy_Curiel.pdf

Bibliografia

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....





